



Lehiaren
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca
de la Competencia

PRENTSA-OHARRA

LEAren jardunbide egokien dekalogoia ikastetxeentzat, uniformeei eta eskola-materialei buruz

Bilbo, 2017ko ekainaren 29a

Lehiaren Euskal Agintaritzak jardunbide egokien dekalogo bat egin dut ikastetxeentzat, uniformearen eta eskola-materialen erosketa eta erabilerari buruz. LEAk azaltzen du Lehiaren Zuzenbidea honako hauek bermatzen saiatzen dela: produktuen kalitatearen hobekuntza, prezio lehiakorragoak, berrikuntza, eskaintza ugariagoa, eta, azken finean, adingabeen eta beren familien interesen hobekuntza.

1. **Ikasleen eta beren familien onura** lehenestea; erabiltzen den uniformearen edo materialen politika ez izatea **oztopoa** ikastetxea aukeratzean.
2. Ikastetxeek **ez dute eskola-materiala salduko era eksklusiboan**. Aukera bat gehiago izango da.
3. Ikastetxeak beren **negoziazio-ahalmenaz** baliatuko dira **beherapenak eta beste hobekuntza batzuk** aurkitzeko; horiek ikasleen onerako izango dira.
4. Ez inposatu eskola-materialaren edo uniformearen marka zehatzik, beste markak alboratuz. **Ez inposatu produktu zehatzik**; erreferentziako modelo bat edo behar diren ezaugarriak eman eta baimendu erosi ahal izatea era askean.
5. Ez erabili jabetza intelektualeko legezko eskubideak mozkin handiagoak lortzeko. Jantziak ezberdindu nahi badituzu, **saldu bereizita bereizgarriak, gero jantzietan josteko** (%185ko aurrezkoa lor daiteke).
6. **Eman familiei edozein aldaketen berri eta saihestu aldaketa sarriak**.



7. Material edo uniformeen banatzaile batekin eksklusibotasun-hitzarmen bat sinatzen baduzu, egin beti **lizitazio-prozesu egoki eta garden bat** (familien interesak jomuga izan behar du).
8. Balioetsi **banatzaile bi edo gehiagoko** sistema bat aukeratzeak onura gehiago ekartzen dituen banatzaile bateko sistema aukeratzeak baino.
9. Egin **lehiaketa-lizitazioak sarritan, hiru edo bost urtean behin, gutxienez.**
10. **Eman familiei** prezioak garestiegiak ez izateko hartutako **neurrien berri.**

Lehiaren Euskal Agintaritza izaera administratiboko erakunde autonomoa da, eta erakunde eta funtzio-autonomia du bere eginkizunak betetzeko. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoei dagokienez.

Txostena:

http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es_informes/adjuntos/81_INFORME_UNIFORMES_ESCOLARES_web_es.pdf